

Akerbeltz

ren gurtzaileak, beren agurrak eta *opariak eskaintzera eta bestelako erritoak egitera.

Hortik dator sorginen gau-batzarreari orokorki eta edozein festa-giroko bilera nahasiri akelarre deitzea. Gaztelaniak ere beretu egin du hitza, gauza beretsua adierazteko.

Ik. Akerbeltz; Sorginkeria.

Akerbeltz

Euskal mitologian halako jeinu baten irudia aker beltza da. Euskal jeinu *Mariaren berezitasunak ditu orokorki; bestalde, bere babesean dituen animalien zaindaritzat eta babesletzat hartzen da. Akerbeltz, ordea, akelarretako edo *sorginen gau-batzarretako eta erritotako erdigune bihurtu zen.

Ik. Akelarrea.

Akerria

Deabrwaren *sinboloa denez, nork bere burua bere gaiztakeriatik eta bekatutik ateratzean, bitarteko gertatzen da, norberaren errua hari egotzi eta haren gain botatzeko.

*Yom Kippur edo Israeldarren *espiazio-egunean, *zezenarekin batera zenbait aker biltzen zuten oparitarako; beste aker baten gain botatzen zituzten herritarren bekatuak, eta ondoren basamortura baztertzen edo amildegira botatzen zuten aker hori.

Ik. Ordezpena.

Akolitoa

1. Eliza latinoko ordena txikietan gorea da akolitoa. Akolitoaren egitekoa aldarrean laguntzea da; batez ere mezako *ministroei: apaizari, diakonoari eta subdiakonoari.

2. Sin.: Eliz-mutila; Beretterra. Akolitozako ordenarik gabe, elizako lanetan apaizari edo beste ministroei laguntzen diena. Ik. Ordenazioa.

3. Sin.: Meza-mutila; Beretterra. Bereziago ordena hartu gabe ere, mezakoa apaizari eta meza-lagunei zerbitzen dienari horrela edo meza-laguntzailea deitzen zaio.

Ik. Ministeritzak; Meza.

Akonfesionala

Sin.: Ez-konfesionala.

1. Erakunde zibilei (estatuari, eskolari, alderdi politikoari) buruz esan ohi da akonfesionala dela, edozein erlijio edo Elizaren fede edo irakatsiekiko atxekitasun sistematikoa ukatzen duenean. Ik. Laizismoa.

2. Kristautasuneko edo beste erlijioen barneko *konfesioen arteko ezberdintasunak aintzakotzat hartzen ez dituen jarrerara esaten da akonfesionala.

Ik. Konfesionalismoa.

Akosmismoa

B. Spinoza-ren filosofi sistema adierazteko erabili izan da. Azken muturreraino eramandako *panteismoa dela esan daiteke. Zerbanakoak Absolutuaren agerkari hutsak besterik ez direla baieztatzen du akosmismoak; haiek ez lukete, beraz, beren benetako izanik.

Akulturazioa

Kultur antropologian bereziki ingelesezko cultural contac adierazteko sortu dute hitza; aurrenik ingelesez erabilia, gero beste hizkuntzetara igaro da.

Kultur bilakaera soziala da, kultura ezberdineko bi gizatalderen arteko ukipena eta eragina adierazten duena. Eragina izan daiteke elkarrekiko edo aldebitakoa, eta, orduan interkulturazioa edo *transkulturazioa deitzen da; edota izan daiteke kultura indartsuagotik makalagorakoa bakarrik, edo aldebakarra: gehienetan kultura menperatzailerik menperatura, gutxitura eta murriztura.

"Kulturaztapena" kontzeptutik bereizi beharra dago, kulturaztatu berez kulturala ez den norbait edo zerbait kulturaztatzen bait da halako kultura batez.

Errebelatutzat eta unibersaltzat hartzen diren erlijioentzat garrantzi handia du akulturazioak.

Izan ere, horien arabera, aldarrikatzen duten mezua eta sinesten dituzten balioak kulturaz-gaundikotzat hartzen dituzte, hau da kultura jakin bati lotugabetzat. Baina bestalde, ez dago fedezko mezu errebelatua adierazterik, kulturazko balio eta sinboloen bidez ez bada. Orduan, kulturaren batetik bestetara mezua "transkulturatu" nahi denean, jatorrizko kulturazko janzkera erantzi beharra dauka, benetan kultura berrian haragiztatu nahi badu errebelazioak.

Bilakaera honi errebelazioaren edo fedearen *kulturaztapena deritza (enculturation). Prozesua oso konplexua gertatzen da gertatzez, errebelazioaren haraindikotasuna etengabe zaindu beharrean jartzen bait du, inongo eta inoizko kultura jakinen bati lotu gabe. Baina erlijioaren zabalkundea eta kulturarena (akulturazioa) batera joan ohi dira sarritan, horrela erlijioa bera eta kultura gainartzailea berdintzeko arrisku eta guzti.

*Misiologian oso garrantzizkoa da arazo hori: "Ebanjelioaren moldaera" esakunearekin berdintzen da. Moldaerak edo aurrintzeak ez du esan gura hemen, ordea, kanpotikako egokitzapena, eta bai giza kultura bakoitzaren eta kristautasunaren arteko gurutzamendua eta elkarren barnerapena; kristau-fedearen arabera, Kristoren *haragipenaren misterioa da Ebanjelioaren moldaeraren eredua.

Ik. Misio-laneko moldaera; Kulturalkuntza; Kultura eta erlijioa; Kulturaztapena.

Paulo Agirrebaltzategi

Akzioa

Gratiarum actio (=eskerrak ematea) latinezko esakunetik dator, laburpen gisa. Garai batetan meza osoa deitzen zuten horrela; gero mezako *kanonari eman izan diote bereziki izen hori.

J. Knox-ek ere eukaristia edo afari santuari izen horixe jarri zion; eta oraindik berbera erabiltzen dute eskoziar presbiterianoek.

Ik. Jaunaren afaria; Meza.

Ala

Erlijiozko adiera bizia duen hitza, eta norberaren zina, arnegua, desira edo harri-dura adierazteko erabiltzen dena. Hortik dator alafede, aladonea, ala deabrua, alajaina, etab.

Norberaren zinaren testigutzat Jainkoa edo santuren bat aipatzeko edo deitzeko erabiltzen da bereziki: Ala Jainkoa (ala jin-koa). Hortik dator "alatu" aditza, norberaren zinaren sendogarri norbait aipatzea adierazteko.

Ik. Zin(itz)a.

Alabantza

Ik. Gorespena.

Alautak

Sin.: Nuzayriarrak

Sekta musulmana da, Syrian garrantzi handikoa, nahiz eta kopuruz gutxi izan jarraitzaileak.

Ali hartzen dute jainkotzat, eta horren isuria omen da Mahomet profeta.

Ik. Islamismoa.

Albitarrak

Ik. Kataroak.

Aldarea

Erlijio guztietan, Jainkoari eskaintako *opariak uzteko mahaia da, orokorki hartuz.

Kristautasunean eukaristia egiten den mahaia da. Judaismotik dator horrelako altzaria oparietarako erabiltzea. Lehen bi mendeetan zurezkoa izan ohi zen, *agapea ospatzeko ere balio zuena. Gero, eta bereziki *katakunbetan, harrizkoa erabili zuten, *martirien hilarri etzanak aldarearena egiten zuelako.

Gaur bietakoa izan daiteke, baina zurezkoa baldin bada, harlosatxo bat eraman ohi du erdian, aldare-harria izenekoa, non santuen *erlikiaren bat gordeta egoten bait da.

Eliza Katolikoan aldarea izan daiteke aldaezina edo finkoa nahiz aldakorra edo garraiagarria; azken hau harri sagaratua besterik ez da, gero edozein mahairen gainean jartzekoa. Eliza bakoitzean, aldare nagusi bat egon ohi da, tokirik nabarmenean, nahiz eta bestelako aldarerik ere egon bazterretan.

Ik. Aldareko sakramentua; Meza.

Aldare-aldea

Aldare nagusiaren inguru guztia deitzen da horrela: hots, gurutze-formako elizatan transeptutik aurrera gelditzen den alderdi osoa, barreneko *koru, presbiterio eta guzti. Batzutan kantzelo bereizita egoten da aldare-aldea *nabetik. Elizkizun-buruak eta laguntzaileak beren eginkizuna betetzen duteneko barruti berezia.

Eliza modernoetan sarritan desagertu egin da arkitektura aldetik barruti hori, edo mugatu gabe gelditu da behintzat, apaiz eta laguntzaileen eta laikoen arteko tartea suntsituz edo txikiagotuz.

Aldare-aldearen atzealdean edo alboetan kokatzen da sarritan klerikoentzako korua ere, apaiztegi edo presbiterio deritzana.

Aldareko sakramentua

1. Sin.: Eukaristia. Mezari deritza aurrenik horrela, eta eukaristi sakramentua edo ospakuntza bera adierazten du.

2. Sin.: Sakramentu txit santua; (Gure) Jauna; Gorputz santua. Ondorioz mezakoan sagaraturiko ogi-argoak adierazten ditu, fededunek komuniatzean hartzen (jaunartzen) dituztenak edota sagraioan gordetzen den ogi santua.

* * * *

Eukaristia edo aldarekoa da erdi-erdioko sakramentua, beste guztien artean, Vatika-